

## **UDALBATZAK 2013KO EKAINAREN 11N EGINIKO EZOHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila hamahiruko ekainaren 11ko arratsaldeko 16:35 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ alkate jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Luis Maria DIEZ GABILONDO
- Miren Alazne KORTA ZULAIKA
- Unai UNSUAIN ELVIRA
- Iruñe BALENCIAGA ARRESE
- Jon TXASKO ORGILLES
- Asier MUJIKA ETXANIZ
- Maria RODRIGUEZ RODRIGUEZ
- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Joseba ECHARTE MARTIN
- M<sup>a</sup> Angeles MACHIN RODRIGUEZ
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- M<sup>a</sup> del Mar CARRILLO GASCON
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Maite PEÑA LOPEZ
- Jose Ignacio IRASTORZA GARCIA
- Marta BAREA JUARISTI
- Jose Manuel HERZOG DE BUSTOS
- M<sup>a</sup> Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO

Bertan dago, ekitaldiaz fede emateko, Begoña BUENO BARRANCO idazkari nagusia.

Era berean, bertan dago Txema ARENZANA GARCIA udal kontu-hartzailea.

### **PUNTU BAKARRA: PSE-EEren mozioa, Errenteriako kultura-ekipamenduak antolatzeari buruzkoa.**

Idazkariak ondoko mozioa irakurri du:

“Udalbatzak, 2013ko urtarrileko osoko bilkuran, aho batez, onartu zuen ondoko puntuak zituen mozioa:

1. Gobernu Taldeari eskatzen diogu txostenak aurkezteko. Bertan jaso beharko litzateke Artelekuk, Euskal Traje-museoak, Udal liburutegiak eta aterpetxeak dituzten beharrak, baita aurreikusia eta inbertsioa beharrezkoa duen beste edozein kultura ekipamendu ere.

2. Gobernu Taldeari, era berean, eskatzen diogu kultura ekipamenduetan egin asmo dituen inbertsioen inguruan egin nahi diren aldaketekin proposamen bat egiteko. Orobat txostenetan proiektuak banaka xehakatu eta zenbat denboraren barruan burutuko diren jasoko da, baita ere zenbatekoak izango diren egokitze-kostuak, mentenimendukoak eta aldaketa hauek kausituko dutenak.

3. Eskatzen diogu, halaber, aparteko batzorde bat egiteko, bertan gai-zerrendako puntu bakarra kultura ekipamenduak orokorrean aztertuko litzatekeelarik”.

Akordio hau ez du bete behin ere Gobernu Taldeak. Alkateak hainbat aldiz hori ukatu badu ere, kontua da hiru hil eskasean Gobernu Taldeak ia-ia urrats guztiak eman dituela bere proiektua exekutatzearren, gisa horretan dauden alternatibak baloratzea eragozten duen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin protokolo bat sinatu arte. Eta dena oposizioari azken une arte ezer jakinarazi gabe.

Ikusi ahal izan dugu bere estiloa trikimailu administratibo eta politiko guztiak erabiltzea dela informazioa ez emateko eta gaiak interesen arabera atzeratzeko. Argi eta garbi dago euren proiektua

hala edo hala inposatu nahi dutela, eta hori onartu ezina da Gobernua gutxiengoan egonda. Arrazoi hauengatik eta kontuak duen garrantzia ekonomikogatik, behean sinatzen dugun zinegotziok ezohiko osoko bilkura bateko deia egin behar izan dugu kultura-ekipamenduen antolaketa eztabaidatu ahal izateko.

Guk ere nahi dugu Dantzagunea proiektua Erreneriara etortzea, badakigulako Dantza-eskolaren osagarri bikaina eta Erreneria Musikalenzako hazteko aukera ederra izango litzakeela. Gure antolamendu alternatiboak jasotzen du, baina askozaz ere arrazoizkoa ikusten dugu aieka guztietatik modu iraunkor baten toki batean sartzea eta ez behin-behinekoz "Erreneriako Hiria" kulturgunean jartzea. Horrek kulturarako espazioak bikoiztea esan nahiko lukeelarik: Lekuona Arte Eszenikoen Gune gisa eraberritzea, eta batez ere, Dantza Eskola eta Erreneria Musikaleko giza-potentziala banatzea. Hauexek dira gure arrazoiak:

**IKEIren txostenean adierazten denaren arabera *Dantzagunea Gipuzkoako Foru Aldundiak ikasketa-prozesuak eta dantza sortzeko prozesuen alde egiteko zerbitzua da.***

Horregatik, pentsatzen dugu Erreneriaren Dantzagunea erakartzeko balio nagusia ez dela Lekuona eraikina, baizik eta bertako jendearen artean dantzak eta musikak duen indarra eta sustraia, Erreneria Musikalen Dantza-eskolaren 400 ikasleen eguneroko jardueran errotzen dena. Horrela, **Erreneriako jendea da balio duena, ez bere eraikinak.** Horregatik, pentsatzen dute hoberena Erreneria Hiria Kulturgunean integratzea dela, izan ere, guneak eta eszenatokiak konpartituko dituztelako, eta gisa horretan dantza eta musikaren sormen-posibilitateak biderkatu.

Uste dute Foru Aldundiak ulertuko litzakeela dantzagune-proiektuarentzako Euskal Herriko harrobirik hoberenak izateak dituen begi-bistatuko abantailak: Erreneria Musikal dantza-eskolaren gaineko solairuan edukitzea, alegia. Zeren eta, benetan bere proiektuarentzako eraikin polit bat eduki nahi badu, denentzat hoberena izango litzake Pasaiako eskaintza onartzea eta Ciriza etxearen –oso diseinu erakargarrian eginga delako– espazioa baliatzea, gisa horretan Erreneriarrok, eta oro har, Gipuzkoarrok, diru asko aurreztuko genukeelako.

Bilduri gogorarazten diote Gipuzkoako ekonomia gainbehera-garaian dagoela, langabezia etengabe hazten ari dela, enpresak ixten ari direla eta diru-sarrera publikoak jaisten. Horregatik, arte eszenikoen bigarren zentro bat eraikitzeke milioi askoko mailegu bat hartzea lehengoa baliatu ahal litekeelarik, erantzukizun ekonomiko eza eta politika oso garestia dela.

Finantzazio-kapitulua merezi du oso serio hartzeak, eta proiektu faraonikoaren kostuak xehetasunez aztertuz gero, argi eta garbi ikusten dute Udalak dantzagunea Erreneriara txeki bidez ekarri nahi duela, horretarako, jakina, maileguak hartzera eta zor publikoa gehitzera behartua dagoelarik. Ikusten denez, Alkateari Pasaiak eginiko eskaintzarekin konpetitzeko ez zaio kartera irekitzea beste modurik otu, baina aurrezpenik eta diru-laguntzarik ez duenez, bankuren batera joan beharko du diru bila.

Protokoloak Udala beharrazten du lokala egokitzeko proiektuaren kostuen % 50, gehi idazketari dagozkionak, bere gain hartzera. Normalena izango litzateke Aldundiak kostuen % 100 bere gain hartzea, askozaz ere baliabide gehiago dituelako eta aretoa soilik berak erabiliko duelako. Gutxienez hori egin du Santa Teresa konbentuarekin, zeren eta arte plastikoetako adarra Artelekura eramango duelako. Han Aldundiak, espazioa egokitzeko gastu guztiak bere gain hartzeaz gain, konpromisoa hartu du, konpentsazio modura, konbentuan bizi direnek okupatzen duten espazioa eraberritzeko. Orduan, zergatik Erreneriak izan behar du gutxiago eta askozaz gehiago ordaindu? Soilik Dantzagunea edozein prezioetan ekartzeko jarrerak esplikatu dezake.

Bestalde, Erreneriako Hiria kulturguneko aretoa denboraldi baterako egokitzeko aurkezturiko proiektuak soilik Dantzagunearen beharrak betetzen ditu. Obrek dantzarako 2 areto nagusi, beste bigarren bat bi bulego izango dituen administrazio-gune ondoan, bilera-gela bat eta aldagela bat dutxekin egokitzea aurreikusten dute.

Alternatiba bat baldin badago, nola zuritu liteke 500.000 euro baino gehiagoko inbertsioa egitea hiru urte baino lehen dena urbanizatzeko? Ia-ia ehun milioi pezetako inbertsioa lokal huts bat egokitzeko soilik justifikatu liteke erabilera gutxienez 10-15 urterako egiten bada.

“Errenteriako Hiria” kulturgunean dantzarako 3 gela txiki, tarteko bat saioetara, handi bat eta eszenatoki bat antzezpenak emateko daude. Nabarmenezkoa da espazio hauek gehienetan okupatu gabe egoten direla, eta horrek erabilera anitza ahalbidetzen duela. Orain behin.-behineko areto horiekin 1.000 m<sup>2</sup> gehitzen badizkiogu, eta kontuan hartzen baditugu Errenteria Musikalen sinergiak..., ez ahal dugu izango Gipuzkoa osoan parerik gabeko arte eszenikoen zentro bat?. Orduan, zergatik gastatu behar ditugu gero 4 milioi baino gehiago Lekuona beste arte eszenikoen gune bihurtzeko?.

Ordura arte jaso duten dokumentazioaren arabera, Gobernu Taldeak kultura-ekipamenduak antolatzeko **6.800.000 €**ko aurrekontua beharko du, ondorengo eran banandua:

- Errenteria Hiria kulturgunea dantzagune-proiektua denboraldi baterako egokitzeko: **525.000 €**.
- Lekuona eraikinean dantzagune-proiektua behin-betikotasunez jartzeko: **4.811.000 €**
- Errenteria Hiria kulturgunean lokala udal liburutegi gisa egokitzeko: **1.195.000 €**
- Torrekua dantzagune-proiektuari atxikiriko aterpetxea egiteko: **140.000 €**
- Euskal traje-museoa (langileria eta kontsumoen urteko gastuak): **129.000 €**

Alabaina ez dute aurkeztu “Koldo Mitxelena-Viteri” Eskola Publikoarekin bigarren solairuan dagoen lokala (egun gimnasio gisa erabiltzen dena) lehenengoarekin derrigor egin beharreko trukaketak suposatuko lukeen kostua, ezta Kapitainenean traje-museoa jartzeko egin beharreko eraberritzearena. Aldaketa egin behar da bertan udal liburutegia jarri ahal izateko, eta horrek beharrazten du ikastetxeko lehenengo eta hirugarren solairuko gelak egokitzera. Era berean, ikastetxeko patioa ixteko konpromisoa dago, aldaketak eragindako eragozpenak kitzatzeko edo. Esan beharrik ere ez dago kulturgunea bikoizteak asko igoko lituzkeela ohiko gastuak, datu hau ere ez du osotasunean kalkulatu Gobernu Taldeak.

Antzeko proiektuak aintzat hartuta, egin beharreko obrei buruzko aurrekontuak aurreikusi ditugu:

- Kapitainenea eraberritzea Euskal Traje-museoa jartzeko: **800.000 €**.
- “Koldo Mitxelena-Viteri” ikastetxe publikoko egokitze-obrak: **300.000 €**
- Koldo Mitxelena-Viteri” ikastetxeko patioa ixtea: **400.000 €**

Beraz, bada, **Bilduren kultura-ekipamendu proiektua asumitzeak 8.300.000 euroko kostua suposatzen du**. Eta orain arte egiaztaturiko diru-laguntza bakarra 250.000 eurokoa da. **Hortaz, nola hasi nahi da 8 milioi euro baino gehiagoko proiektu batekin finantzazio-formula bat aurreikusi gabe?** Eta eskatu beharko den maileguren finantza-kostuak? Zergatik ez dira aurreikusi kostu hauek? Euren aburuz arduragabetasun osoarekin jarduten ari dira eta gutxiengoa duen gobernuak ez du nahiko zilegitasun oposizioan dauden alderdien aldeko iritzirik gabe sinestezinezko proiektu hau aurrera eramateko. Horregatik, prozesu hau geratu eta behar bezala antolatzea derrigorrezkoa da.

**Erabaki honek ekonomia aldetik duen garrantziak gehiago politikoaren adostasuna eskatzen du, Errenteriarako positibotzat joko lukeen proiektua baloratuko lukeena**, Beraun-Kaputxinoetako igerilekuekin gertatu den gisakoa. Oso erakusgarria da gogoaraztea egungo Gobernu Taldea aurreko legegintzaldian igerilekuaren aurka zegoela, nahiz eta, behin boterea hartutakoan, proiektuaren alde onak ikusi dituen, horien artean obraren aurrekontuaren % 90eko diru-laguntzak, gutxi gora-behera, zituela.

Alabaina adostasuna ezinezkoa izango da ez badira zorrotz eta arretaz begiratzen dauden alternatiba guztiak, hots, proposaturiko aukera ezberdinei loturiko kostu guztien xehakaturiko azterlana egin eta gero. Horregatik, sozialistok kultura-ekipamenduak antolatzeko ondorengo proposamena egiten dugu, proiektu bakoitzaren aipamen labur batekin batera:

- **Dantzagunea proiektua:** hemen "Errenteriako Hiria" kulturgunean era egonkorrean jarriko litzateke, behin-behineko erabiltzeko prestatuko den espazioan alegia. Gisa honetan lokala egokitze egin beharreko inbertsio handia denbora joan ahala amortizatzen joango litzateke eta kultura interesa duelako. Edonola ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak proposaturiko protokolo baldintza ekonomikoak negoziatuko beharko lirateke, udal interesentzako oso garestiak direlako.

- **Lekuona eraikina:** hemen udal liburutegia eta herritarrentzako zerbitzu interesgarriak -aurrera azalduko diren- joango lirateke. Obra hau soilik finantzazioa -erakundearen diru-laguntza bidez edo aurrezpen propioz-, hein handi batean, berriz egongo litzaketenean egongo litzake.

- **Torrekoa:** Euskal Traje-museoa eta antzeko erabilera bateragarri jartzeko gordeko litzateke. Turismo aldetik interesa handia duen baliabide historikoa da, era duin, bere muinari errotua eta ekonomia aldetik iraunkor batez aprobetxatu beharrekoa.

- **Liburutegia egun dagoen lekua:** ostalaritza edo kultura arloari loturiko erabilentzako eraberritu eta egokituko litzateke. "Oarsoaldea" Lurraldeko Garapen Agentziak proiektu publiko-pribatu susta zezakeen enpresa-proiektu errentagarri bat garatzeko, enplegua sortu eta epe erdira eta luzera egindako inbertsioak itzuliko lituzkeenak.

Gure alternatibak helburu du Lekuona urtean zehar dozenaka-milaka pertsonak erabiliko lukeen eraikina izatea. Horregatik, bertan egon behar dute udal liburutegia, hala nola herritarrentzako interesgarriak izango liratekeen hainbat zerbitzu. Esaterako, kontsumitzaileentzako bulegoa, Kzguna, Gazteria Informatzeko bulegoa, edota, etorkizuneko Herritarrentzako Arreta-zerbitzua, besteak beste. Antzinako Lekuona okindegiak 3.000 m<sup>2</sup> hurbil ditu, eta beraz, eremu-banaketa malgua izan daiteke eta administrazio-integrazioa errazteko nahiko sinergia sor ditzake.

Liburutegiak berak bakarrik ia-ia 10.000 bazkide ditu, 70.000 bisita baino gehiago eta urtean zehar 45.000 mailegu inguru egiten ditu. Aitatu zerbitzuak gehitzen badizkiogu, benetan erabilera publikoko eskualdeko leku bat edukiko dugu, eta horrek 4 milioi euro baino gutxiagoko inbertsioa justifikatuko luke. Era berean, zerbitzu horiek integratuta ohiko udal gastuak murriztuko lituzke, egun zerbitzu horiek ematen diren lokal libre geratuko liratekeelako, eta saldu edo beste gauzetarako erabili ahal izango liratekeelako.

Orain liburutegia dagoen eraikina, jatorriz bizilekua denez, dantzaguneari loturiko ostalugune bat sortzeko leku egokia izan daiteke. Horregatik, gure alternatibak Torrekuak lehen eraberritua izan zen xederako balio zezakeela ikusten zuen, hots, Traje-museoa ipintzeko. Gisa horretan ez kapitainena eraberritu beharko, ezta Koldo Mitxelena-Viteri ikastetxe publikoko obrak egin ere. Soilik horrekin 3 milioi hurbil aurreztuko genituzke Bilduren proiektuarekin konparatuz gero, gainera kultura-proiektuak mantendu eta herritarrentzako zerbitzuak hobetuz.

Bestalde, Udalarentzat interesa estrategikoa du Lekuona eraikina finkatzeak eta eraberritzeak, batez ere kultura-ekipamenduak behin-betiko antolatzea adostu eta berorien finantzazioa hein handi batean beste erakundearen diru-laguntza eta Udalak berak aurrezpena dela medio bermatua izanez gero. Gure aburuz finantzazio-berme horrenik gabe, ez lirateke horrelako obrak egiten hasi behar. Horregatik, soilik bideratu behar dira eraikina zaintzeko beharrezko baliabideak, hau da, kultura-ekipamenduen antolaketen edozein alternatiba exekutatzeko orduan ekonomia aldetik ahalik eta zentzuzkoena izan dadin.

### **Adierazitako guztiagatik, Udalbatzari proposatzen zaio har ditzan ondorengo**

#### **AKORDIOAK**

1. Eskatzea Udal Gobernu Taldeari Gipuzkoako Foru aldundiarekin eginiko protokoloaren terminoak birnegotzia ditzan, beti ere ondoko aginduak dituela:

1.1 Lortzea Dantzagunea-proiektua "Errenteria Hiria" kulturguneak okupatzen duen eraikinean sartzeta, beti ere aukeratutako leku hori gutxienez 10 urte eta gehienez 20 urterako lagako litzatekeelarik.

- 1.2 Birnegoziatu baldintza-ekonomikoak udal ekarpena -proiektu osoaren kostuak % 20 baino gehiago suposatuko ez lukeena- berrerekatzeko.
2. Baja ematea Lekuona Eraikinaren egitura-egokitzeko (ULO) aurreikusitako 826.000 euroko 1 04 01 622 432 10 01 aurrekontu-partidari. Bertan behera uztea 18 Area: Olibet-Etxe Berriak, 18/03 E.U.: Lekuonari dagokion exekuzio-proiektua esleitzeko hasitako lizitazioa.
3. Eskatzea Hirigintza departamentuari "Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak" udal taldeak ekipamenduak antolatzeke kostu-azterketa eta bideragarritasuna egin dezan. Era berean, aztertu eta baloratu beharko lirakeke beste alderdi politikoeke planteatuko lituzketen antolamendu-alternatibak.
4. Bideratzea aurrekontu-partida, nahikoa diru-kopururekin, Lekuona eraikina mantentzeko teknika-ikuspegi batetik egin beharreko obrak burutzeko, hain zuzen eraikina sendotu eta etorkizuneko eraberritzea bermatu ahal izateko.
5. Sortzea akordio honen jarraipena egiteko batzorde bat, alderdi politikoen bozeramaileek osatuko luketena. Beronek eztabaidatu eta erabakiko lituzke non jarri kultura-ekipamenduak."

Ondoren mintzatu dira:

\* Jose Angel Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du Alderdi Sozialistak ezohiko osoko bilkura hau ondorengo arrazoiengatik eskatu duela: Alkateak ez dituelako bete Udalbatzak 2013ko urtarrilaren 29ko osoko bilkuran, aho batez, harturiko akordioak; Alkate jauna ez delako gauza izan Udalbatza osatzen duten gehiengoarekin gutxiengo kontsentsu eta akordioak lortzeko; Alkate jaunak erantzukizunik gabe jardun duelako; kultura-ekipamenduak finantzazio-planik eta gehiengorik gabe kudeatu nahi izan dituelako; Alkate jaunak Foru Aldundiarekin herriko interesentzako kudeaketa kaltegarria egin duelako, horrela ikusten du Alderdi Sozialistak. Hori diote hilabeteak daramaketelako Alkate jaunari eskaka kultura-ekipamenduei buruzko plan bat elkarrekin egiteko, alegia, kontua aztertzearren mahai gainean jartzeko, hala nola ahalik eta informaziorik gehienarekin, Errenteriarantz eta herritarrentzako hobereena izango diren proiektuak, gastu-aurrekontua, memoria, finantzazio-plana, etab., gero denen artean egiteko. Gertakarien historia txiki bat eginez, ikusten dute Alkate jaunak, plan-estrategikoarekin hasi zirenean, zantzu txiki batzuek eman zituela zer zeukan buruan ekipamendu ezberdinei buruz adierazteko, baina plan horretatik irteten ziren emaitzen baitan uzten zuen. Haatik hori ere ez da horrela izan. Plana egiten ari ziren bitartean, askotan esan izan du, gainera, aldi bakoitzean konbentzimendu gehiagorekin, bere planak aurrera eramango zituela, nahiz eta, bileratan aditzera eman edozer gauzez hitz egiteko prest zegoela. Une horretan, jada, Traje-museoa eta Iraultzarekin arazoak izaten hasi zen. Gainera, Dantzagunea Errenteriara ekartzeko aukera atera zenean, bere jarrera ez amore-emaille eta inposatzailea izan zen, nahi eta ez, Gobernuak gutxiengoa izanagatik, berori Lekuonara joango zela esan zuelako. Gertakari hauen aurrean eta beroriek udal interesentzako duten garrantziagatik, batez ere ekonomikoak, eta, aldi berean, errespetu eta modu txarrean tratatuak izan direla uste dutenez, eta Gobernu Taldeak gainontzeko Udalbatza aintzat hartu gabe jarduten duenez, urtarrilean erabaki zuten, mozio honen bidez, pentsatzen zutena eta desio zutena mahai gainean jartzea. Kurioa bada ere –dio–, mozio hura aho batez onartu zen baina bertan hartutako akordioak Alkateak ez zituen bete.

Denbora pasa ondoren eta ikusirik Alkateak ez zeukala hura bere egiteko asmorik, lau paperekin eta bi planorekin toreatzen eta manipulatzeko aritu zaie, ezer serio, zehatz eta ganorazkorik egin gabe denborak aurrera egiten zuten bitartean. Alkateak eta Gobernu Taldeak euren egoskorkeriarekin aurrera egin dute gainontzeko Udalbatza aintzat hartu gabe, gisa horretan, sartu nahi izan dituzte lasterketa hori irabazteko asmoarekin. Izan ere, jada sinatu baitute Foru Aldundiarekin asmoen akordio bat, bere taldearen ustez ona ez dena eta Errenteriako interesentzako aise aski hobetu litekeena. Haren aburuz ez daiteke inolaz ere onartu sinatu aurretik gainontzeko alderdiekin ez hitz

egitea, denen artean herriko interesak hobetzeko ekarpenak egin zitzaketelako. Horrela, oposizioko talde ezberdinek esan behar izan diote –ofizial, publiko zein pribatuki– hori ez dela jarduteko modua, baina zoritxarrez, ez du serio eta erantzukizunez lana egiteko asmorik. Are gehiago, bere egoskorkeriarekin jarraitzeko, kanpoko enpresa batekin azterlan-txosten bat, erabat publizitarioa, muntatu du, hain zuzen bere proiektua bezitu eta babesteko kultura-instalakuntzei izen-abizenak ipiniz. Kuriosoa bada ere, uste du, Alkateak hilabete asko lehenago predikatzen zuena egin dela, nahiz eta oraindik amaitu gabe egon. Euren aburuz esku hartu duten guztiei adarra jotzen aritu zaie. Azterlan publizitario honen inguruan, bere Alderdiak esaten dio horrek ia oso-osorik proiektu hori edo beste edozein ezagutzera emateko balio duela. Are gehiago, eurek hobetzeko gauza dira Udal honi ezer kosta gabe. Paperak dena jasaten duelako, filosofia asko du, baina funts gabea da, izan ere, ez dituelako aintzat hartzen gauza asko, ez du gutxiengo zorrotzasanik, esaterako, ekonomiko-finantzarioa, ez du aportatzen inbertsio-konponbide edo diru-sarreraren planifikaziorik. Horrek, oso aspaldi ez dela, ez luke ibilbiderik izango, gure teknikariek eta Kontu-hartzaileak, Udalaren sosa ez kaltetzearren, diru-sarrerak bermatzeko abalak eskatuko zituzketelako. Berme horiek, eginiko kudeaketa zuhurrari esker, ahalbidetu da Udala ez zorpetzea eta orain dauden egoeran egotea. Bestalde, Udalbatzaren gehiengoak onarturiko lehenagoko proiektu bat dago, baina abian ipini ez zena. Lekuonaren kasuan oinarrizko bi kontuengatik: kanpoko baliobiderik ez zegoelako, Udalaren diru-kutxak ez kaltetzeko eta Udalbatza berria iritxi zelako. Gainera, Traje-museoa ia-ia prestatua zegoen abian jartzeko, baina Gobernu Talde berriari ez zaio gustatzen. Era berean, aurreko legegintzaldian jorratzen hasita zegoen “Artiola” deituriko proiektua, Aldundia, Ereintza eta Artesauen Elkartearekin; dena zegoen ahokaturia, hitz egina eta bideratua, baina nonbait ez egun gutxiengoa ordezkatzeko duenarentzat. Jarrera honek eraman ditu, Dantzagunea herrira ekartzeko aukera aitzakitza hartuta, Gobernu Taldeak demostratu du, bereziki, Lekuonaz duen obsesioa, Erreterriako Kulturgunean, leku enblematikoa, lokal eder bat dagoenean, zeina ederki asko osatuko bailitzateke Dantzagunearekin, Musika Patronatuak eta Dantza Eskolak hor egiten dituen aktibitateekin, hala nola lehendik dauden azpiegiturekin. Aldiz, hori aski ez dela, hainbat esames kontatu dizkie, non aldaketak ezker eta eskuin aldera egin baitira, finantzazio-planik gabe kriston euro pila suposatuz. Ez da eman gutxiengo eztabaida eta adostasunik, inposaketa hutsera eraman nahi dituzte. Eurek ez dute onartuko gutxiestea, are gutxiago txantajea egitea Dantzagunea Lekuonara ekartzen ez bada, ezin izango dela ekarri Erreterriara esanez. Zentzu horretan, azken bi urte hauetan Bildurekin Gipuzkoan gauza okerragoak ere bizi izan dituzte, izan ere, hitzarmenak, adostasunak eta akordioak hautsi baitituzte, modu horretan, kasu batzuetan, lehenbiziko egunean zeuden kasuetara itzuliz. Bere taldeak proiektu diferentea eta ekonomikoagoa du, eta gainontzeko udalbatzarkideekin eztabaidatu eta publikoki ezagutzera eman nahiko lukete. Hobetu dezaketen ekarpenei irekita dagoen proiektua da, eta, batez ere, ez da inposatzailea, adostu daitekeena baizik. Jakin badaki beste taldeek ere ideiak eta ekarpenak badituztela. Zergatik ez da egiten Udalbatzak urtarrilean, aho batez, erabakitakoa, galdetu du. Bere iritziz, Erreterrian ez daude maileguak hartzeko moduan, proiektuak, aurreko legegintzaldian egin izan duten gisan, gutxienez % 70eko diru-laguntza izango duela jakinda egin behar direlako. Zehaztu dezakete 2007-2011 epealdian, kultura eta kirol-ekipamenduetako aurrekontua 8.452.000 € ingurua izan zela, eta obra horiek egiteko diru-laguntza 6.695.000 €-koa zen, aldea 1.757.000 €. Une hauetan Erreterria ez dago aldaketa eta ideia horiekin sartu nahi dituzten euroak barra-barra ibiltzeko, beharrak oso bestelakoak dituelako. Behar horiek lehen mailakoak dira, eta horietako asko bizi-irautekoak. Iradokitzen die oinak lurrean ipintzeko, izan ere, prentsaren izenburuak soilik irakurriz gero, egoeraren berri irratiz entzun edo telebisio-kate ezberdinetan ikusi eta entzuten dutenrekin esaten ari zatzaie krisi hau ez dela amaitu, are gutxiago denek ikusi, ezagutu eta punitzen dutelako bizilagunek, lagunek eta sendiek bizi duten egoera. Adibide batzuek eman nahi ditu, esaterako, Caritasek Erreterriari, laguntza ekonomiko gisa, dirutan 182.446 € eman zizkion; atenditutako pertsonetatik heren batek hiru urte baino gehiago

daramazki laguntza jasotzen eta kasu egindako pertsonak % 20 baino gehiago igo dira. Laguntza horiek janaria, enplegua, etxebizitza, bergizarteratzeko laguntza, etab.etan banatzen dira. Familia-gatazkak, emozio-desgastea eta pobreziari aurre egiteko kopurua jaisten ari da. Krisia dela medio, indarkeria, bere buruaz beste egiteko kasuak, alkoholismoa, etab. igotzen ari dira. Gipuzkoan langabezian 50.300 lagun daude, eta Erreterian ia-ia 3.500 daude, % 18 eta goranz doa. Pasa den abendutik apirila bitartean, lau hilez, 250 enpresa itxi dira, aurreko urtea baino % 9 gehiago eta Gizarte Segurantzian 3.000 kotizatzaile gutxiago. Gipuzkoan azken 5 urtetan 2.195 enpresa galdu dira, eta urteko BPG % 2,6 jaitxi da. Salmentek, berriz, ia-ia % 5 atzera egin dute. Enpresen % 70-ek eskabide-zorroa oso ahula du. Eustatek emaniko datuen arabera, azken hiruhilekoan Gipuzkoa izan da lurralde bakarra enplegua galdu duena. Autonomia Erkidegoan enplegua galdutako 46.400 etxeetako kide guztiak langabezian daude. Euskadi osoan langabezia % 16,28koa da, % 9 igo da. Gipuzkoan % 13,27koa da. Donostian langabezia % 13koa da, Tolosan eta Goierri % 14. Bidasoa eskualdean, berriz, % 17,88. Milioi erdi bat euskaldun miseria-gorrian bizi da. Euskaldunek langabeziak duten kezka mailarik altuenean dago. Gehiago ere jarrai zezakeen, baina datu hauek ikusita, eskatzen du oinak lur gainean jartzeko. Erreteriak dituen lehentasunak beste batzuek dira, izan ere, honek guztiak kontua ausnartzera eramaten ditu eta herriko arduradunak izanik, herritarrei bizi-kalitate hobea eman, enplegua, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, gazteria, etab.ek dituzten arazoak duintasunez konpondu behar dituzte, beti ere jakinaren gainean egonik afera zaila dutela. Herritarren gabeziak arintzeko eta hobetzeko ahaleginak egin behar dituzte. Egungo egoeraren aurrean, hori oso garrantzitsua delako. Proiektu handiak oso ondo daude, baldin eta galtzarbean ogi bat dutela etortzen badira. Une hauetan, gutxi gora-behera, plan hauek 8.000.000 euroko gastua suposatuko dute, eta diru-sarrerek, berriz, 250.000 euro. Eta, berriro diote, argi geratu dadin, ez dutela esaten Dantzagunea Erreteriara etortzea ez dutela nahi; ez dute esaten ez dutela ilusiorik herria hobetzeko proiektuetan, soilik eskatzen dute erantzukizunetik logikoena eta justuena, hori lehentasunak zorrotz ipiniz, gauzak eztabaidatuz, elkar errespetatuz, tolerantia izanez, etab.ean oinarrituriko adostasuna aurkitzea baino ez delarik. Jarduteko modu horri ere, eurek partehartzea deitzen diote, baina ez izki larriekin. Mozioan aurreratzen zuten eurek kultura-ekipamenduez duten ideia, eta nola ulertzen zuten jarduera diferenteak jartzeko modua, baina benetan uste dute Erreteriarentzako hobereana jorratu eta eztabaidatu beharko zuketela laguntza juridiko eta teknikoarekin. Hortaz, ezohiko osoko bilkura egiteko mozioan egiten duten proposamena berresten dute. Uste dute Gobernu Taldeak 2015eko maiatza baino haratagoko konpromisoak hartu nahi dituela, jakinaren gainean egonik, ez dakitela Aldundian eta Udalean gobernazen ariko diren, eta hori, bi erakundeetan gobernatzeko erantzukizuna izan dezakeen taldeekin ezer adostu gabe. Bere iritzian koherentziarekin jardunez gero, ez da onargarria legegintzaldi honetan eginikoa, hurrengo Gobernu Taldeak bere baitan ez hartzea. Bere iritziz, gauzak berrikustea jakintsuen kontua da, kasu honetan zuzentasuna eta erantzukizuna eskatzen ari badira ere. Alkate jaunari esan diote zirkunstantzien parean jarduteko eta iragan urtarilean Udaltzarak Erreteriako herriarekin hartutako konpromisoak betetzeko. Hori horrela gertatzen bada, bere taldeak kolaboratuko du, bestela, oposizioan zorrotz jardungo du. Gainera, agerian geratzeaz gain, demostratuko du bere kudeaketa eta hitza hutsalak erabiltzen dituela.

\* Ferradas jaunak (Erreteriako Ezkerra) Alderdi Sozialistak aurkezturiko mozioa abordatzeko orduan, beharrezkoa jotzen du aipamen bat egitea aurreko legegintzaldian herri honetan proiektu maialan zer egin zen ikusteko. Horrela, esan beharrean dago ez zegoela proiektu bakar bat ere, eta ez zegoela herrira iristen ziren diru-laguntzak gastatzekoak baino haratagoko ikusmirarik, eta une hauetan Alderdi Sozialistak, zorionez, beretzat erreklamatzeko duen parte-hartze hori, besteek ere erreklamatzeko zuten. Bere aburuz, momentu hau alternatibak, bideak eta konponbideak bilatzeko unea da, besteak beste, Alderdi Sozialistako Jose Angel Rodriguez jaunak aitatzeko zuten krisiagatik. Bere iritziz, une hauetan garrantzitsua da herriari nora doazen eta nora joan

nahi duten ikuspegi bat ematea. Perspektiba hori, jakina, ez da izango Lezotik Gantxurizketara egin nahi zen errepidea, ezta ere Pasaiako kanpo-portua, ezta industria pisua, ezta ere industriaren itzulera. Hortaz, bide hori itxita dagoenez, beste berri batzuek ireki behar dituzte. Hortaz, ireki behar dituzten ate horiek

Irekitzeko garaian, pentsatzen du kultura-ekipamenduei buruz mahai gainean jartzen duten proposamenak Errenteriarentzat etorkizunerako erreferentzia eta alternatiba sinesgarria izango da. Bere aburuz zentzu horretan soilik izango da bideragarria. Aldiz, uste du, mozioan ezagutzera ematen diren zifra zenbait horixe falta zaiola, sinesgarritasuna hain zuzen ere, arrautza puzteko baino balio ez dutenak. Bere ustez, arrautz hori galdu egiten da eta Alderdi Sozialistak, bere diskurtsoa, ezetzetik abiatuta eraikitzen du, eta mahai gainean jarri den proiektua bultzatu edo ez bultzatzeko jarrera nolabait hauteskunde-izaerako kutsuarekin lotzen du. Bere iritziz, Alderdi Sozialistak ekarpenak egin behar ditu, beste gauzen artean, epe ertainera eta luzera kudeatzeko alternatiba delako. Berari zaila egiten zaio ulertzea, epe laburrera begiratzuz edo interes elektoralei, nola ez duen uzten Alderdi Sozialistak bide hori, nola ez dien erronka horiei uko egiten. Berari zaila egiten zaio, halaber, hori asumitzea, eta beraz, bere Taldeak ez du sstotengatuko Alderdi Sozialistak ezohiko osoko bilkurara ekarritako mozioa.

\* Herzog jaunak (PP) esan du badakitela denek Dantzagunea proiektua garrantzitsua dela. Bere aburuz, Errenteriara jarduera ekarriko duen trakzio-proiektua da, eta hori ez soilik Dantzaguneagatik, beste jardueren motorra izango delako baizik. Haatik, ekonomia aldetik zailtasunak dauden une honetan, bere aburuz, beharrezkoa, beharbada, lehenengo premiazoena egitea da. Ez dute Dantzagunea proiektua galdu behar, baina eztitu behar dute behar-beharrezkoa den ekonomia-oinarria erren dagoelako. Euren iritziz, kontua oraindik gordin dago, ez dakitelako dirua nondik eta nola etorriko den. Etorriko dela, Aldundiak jarriko duela esaten diete. Aldundia, Dantzagune-proiektuaz, beharbada, Errenteria baino gehiago onuratuko denak, ez ditu jartzen mahai gainean jarri beharko litzuzkeen baliabideak. Euren ustez, kontu hau oraindik erdi gordinik dago, eta oraintxe bertan mahai gainean dagoen moduan aboradatzea, airean gazteluak eraikitzea bezala da, tupust egiteko arriskuarekin. Izan ere, ez baitute ahaztu behar gehienez ere zorpetu daitezkeen mugan daudela; dirua ez dela airetik etortzen, eta kartera denetarako kontuz ibili behar dela. Eta, berriro dio, denak ados daudela Dantzagunea hemen izatearekin, hori ahalbidetzea nahi dute, baina ez dute jarduketa jakin baten inposaketarik nahi. Bere iritziz, apika, une honetan zentzuzkoena Alderdi Sozialistak proposatzen duena da, eta aurrerago hobeto pentsaturiko gauza batera jotzea. Egia da -dio- Lekuona eraikina berehala eraberritu behar dela, eta hor denak datoz bat. Hortaz, parte batean denak ados daude, eta beste zatian, berriz, ez. Uste du Alderdi Sozialistak ekarritako mozioan denak ados jartzea zaila izango dela. Horregatik, Alderdi Popularrak puntuz puntu bozkatzea proposatzen du.

\* Maite Peña andreak (EAJ-PNV) esan du berari iruditzen zaiola beharrezkoa dela eztabaida hau guztia hasierara eramatea, Udal honetan kultura-ekipamenduei buruzko proiektu oro gaizki hasi dela iruditzen zaielako. Gaizki dio, batez ere alderdi Politikoen artean, eta, batez ere, presa handia dutelako Dantzagunea zegoen tokitik ateratzeko. Dena hasi zen -dio- udal aurrekontuak onartzeko aurkeztu baino egun batzuek lehenago, Udal honek lehenagotik bere eginda zeuzkalarik proiektu zenbait. Esaterako, Torrekua, Traje-museoa edo Lekuonan Udal Liburutegia jartzekoa. Orduan, informazio gehiegirik gabe dena hankaz gora ipini zen, eta bere Taldeak, informazioa eskatu zuen puzle berria nola osatuta geratzen zen ikusteko, eta une oroz ez zeudela kokapen berri horien aurka argudiatu zuen. Haren ustez une hartan ez zioten sinetsi, eta ez daki zer oztopo-klase jartzen ari zela leporatu zioten. Gaineratu duenez, egia osoa da euren informazio gehiagoren beharra zeukatela, eta ildo horri jarraiki, hain zuzen ere, aurkeztu zuten, gero, aho batez, onarturiko mozioa, nahiz eta ondoren halakoxekoa izan hark eginiko ibilbidea. Zentzu horretan, esan behar dute euren jarrera liburutegia Lekuonan jartzekoaren aldekoa zela, baina Udal honi Dantzagunea etortzeko aukera planteatu zitzaionean, pentsatu zuten aukera hori ezin zitekeela eskapatzera utzi, eta Dantzaguneak



Erreterian egon behar zuela. Gisa horretan, uste dute, igoal Erreteriak aurrera urrats bat emango duela Gipuzkoako kultura munduan. Beste kontu bat da non jarri. Izan ere, hasieran Lekuonan edo bestela inon, planteatu zen. Orain hori matizatu egiten da. Eurek, Taldean, kontua eztabaidatu zuten eta atera zuten ondorioa, Erreteriarra Dantzagunea jartzeko lekuri onena, justuki, Lekuona zela. Eta hori zergatik? Ba Erreterian aspaldidanik kultura-eragileek auditorio handiago baten beharra zegoela aldarrikatzen ari zirelako. Euren aburuz, Lekuonan badago lekuri aski Dantzagunea eta auditorioa ipintzeko. Uste dute ez dutela aukera hau pasatzen utzi behar, eta horrekin demostratzen ari dira sineskaitzei, EAJk informazioa eskatu zuenean, ez zela ari harriak eta makilak oztopatzeko jartzen, baizik eta arazoa aztertzeko informazioa jaso eta koherentziarekin erabakia hartzen. Kudeaketari dagokionez, berriz, proiektuan itzalak ikusten dituzte. Hala, Dantzagunea hona etortzea zoragarri iruditzen bazaie ere, sinaturiko protokoloa interpretagarria da. EAJren irudiko Aldundiari areto bat uzten bazaio, eta gela hori egokitzeko gastuaren % 50 ordaintzen bazaio, proiektua osoz Aldundiatik datorrenean, hori ez da zuzena, ez da nahikoa, Udalak gutxiago jarri beharko lukeelako. Bestalde, ez dute uste afera atzeratu eta mantsotu behar denik, aitzitik, pentsatzen dute Dantzagunea Lekuonara lehenbailehen ekartzea hobe dela, orduan eta lehenago izango dituelako Erreteriak auditorium bat, hala nola bizi eta kultura gehiago lehen aitaturiko urrats hori emateko. Beraz, errueda bakar batean ere oztoporik jartzeko asmorik gabe, uste dute gutxienez finantzazio-kontuak pitin bat argiago egon beharko luketela. Haren hitzetan ezin da sarerik gabeko arrisku-salturik egin. Ziur dago, bestalde, Gobernu Taldeak gaiari buruz askozaz gehiago dakiela, baina eurek ez dakitenez, arduraz jardun behar dutela uste dute. Eta, berriro dio, esku artean dituzten datuen arabera, ezin dutela besterik esan. Finantzazioa etorriko dela jakinez gero, ondo, baina bestela, Erreteriak ezin izango dio aurre egin inbertsio horri, gaineratu du. Eurek kultura –gehien edo gutxien bezainbeste– sustatzearen eta Dantzagunea etortzearen aldekoak dira. Alabaina, Udaletxe honetako Talderen batek beste proposamen bat egin nahi badu, uste dute berori aztertu behar dela zerbait gehitu daitekeen ikusteko. Izan ere, horiek baitira demokrazioaren zimentarriak, eta denen artean esan behar baitiete baietz edo ezetz. Eurek aldatu dute irizpidea, lehen liburutegiak leku horretan egon behar zuela uste zutelako, eta orain, berriz, Dantzaguneak. Aldaketa –dio– ez da kapritxoak eragindakoa izan, oinarritua baizik. Hobetzeko egin dute, eta ez dute jarrera aldatzeko beldurrik. Norbaitek hobekuntzaren bat planteatzen badu, ez dute aurrera egiteko beldurrik; oposizioko kideek beste alternatibak aztertzeko planteamendua egiten badute, berak ez du batere beldurrik. Berak puntuz puntu bozkatzeko aukera hobeagoa dela uste du, lehenengo puntuarekin ez daudelako batere ados, behin-betikoa lehenbailehen joaten bada... sinesteko ikusi egin behar...

\* Mendoza alkate jaunak (E.O.BILDU) esan du mozioari puntuz puntu erantzun nahi diola, hain zuzen atal askotan zorrotzasun gutxi dagoela uste duelako, eta zenbaitetan, errespeto guztiarekin esaten badu ere, demagogiatik hurbil dabilzala uste duelako. Lehenengo atalari dagokionez, behin urtarrileko osoko bilkuraren akordioa mahai gainean jarri eta gero, zera esaten da: "Gobernu Taldeak ez du bete akordio hura. Alkateak askotan hori ukatu badu ere, errealitatea da hiru hilabete eskasetan euren proiektua burutzeko ia-ia urrats guztiak eman dituztela, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinaturiko akordioarekin bukatu arte, zeinak alternatibak baloratzea eragozten baitu. Ikusi ahal izan dute Alkatearen estiloa trikimailu administratibo eta politiko guztiak baliatzea dela informazioa ez emateko eta gaiak atzeratzeko". Berak uste du merezi duela aitatzeta lehen zer erabaki zen eta Alkateaz zer esaten den, hots, "ez dela hitzeko gizona eta engainatzen ari dela". Haren hitzetan, erabaki zena, besteak beste, azalpen-zatian, nahiz eta, beharrezkoa izanez gero, ez du inolako arazorik ebazpen-zatira joateko, zera izan zen: "positiboa iruditzen zaigu Dantzagunea gure herrira ekartzeko aukera, baina galdera asko sortzen zaizkigu: zer gertatuko da orain liburutegiarekin?, eta Torrekua eta Traje-museorekin? Eta Kapitain Etxearekin? Eta Udalak Niessenen dituen eta egun artxibo gisa erabiltzen diren 1000 metro karraturekin?". Premisa horiekin eskatu zitzaion Gobernu Taldeari Arteleku, Traje – Museoa, Udal Liburutegia, hala nola

aurreikusi eta inbertsioa beharrezkoa izango lukeen edozein kultura-ekipamenduei buruzko txostenak egin zitzaizkien. Hori horrela, eurek pasa duten informazio guztiak aitatu nahi ditu: 2013ko maiatzaren 8an Bozeramaileen Batzordea egin zuten Udaletxean. Bertan izan daitekeenaren lehenengo zirriborroaren berri eman zuten; Niessenen goiko partean –gaur egun Koldo Mitxelena eskolako gimnasioa dena– liburutegia-proiektu batek izan zitzakeen aukerak aitatu zituzten. Gerotik txosten ezberdinak banatu dituzte, hain zuzen Arteleku, Traje-museoa, Liburutegia, Udal Aterpetxea, etab. i buruz eginiko eskaerei erantzuteko. Horien artean dago Udal Industria ingeniariak, 2013ko martxoaren 19an, Torrekua eta Kapitain Etxea Traje-museorako izango lituzkeen mantentze-kostuei buruz eginikoa. Kultura teknikariak, 2013ko apirilaren 23an, Traje-museoko langileria-gastuei buruz eginiko bestea. Udal arkitektoak, 2013ko maiatzaren 8an, Liburutegia Niessengo lokal batean jartzeko kostuei buruz eginiko txostena. Hiri Mantetzeko alboko arduradunak, 2013ko maiatzaren 8an, Traje-museoa garbitzeko gastuei buruz eginikoa. Maiatzaren 16an Bozeramaileen Batzordeak beste bilera bat egin zuten Erreteriarako kulturagune eta sormeneko proiektuaren berri emateko. Proiektu horrek jasotzen ditu Artelekuren beharrak, kasu honetan Dantzagunearenak, Euskal Traje-museoarenak, Liburutegiarenak eta Udal Aterpetxearenak. Proiektua gehixeago edo gutxi xeago gustatu liteke, baina aurkeztu, aurkeztu zuten. Hauxe da eurek emaniko informazioa, eta horretan oinarrituta Alderdi Sozialistak idatzi du bere mozioa. Bigarren puntuari dagokionez, berriz, “Horregatik, pentsatzen dugu Erreteriararen Dantzagunea erakartzeko balio nagusia ez dela Lekuona eraikina, baizik eta bertako jendearen artean dantzak eta musikak duen indarra eta sustraia, Erreteria Musikalen Dantza-eskolaren 400 ikasleen eguneroko jardueran errotzen dena”. Halaxe da, mozioarekin bat datorren gutieneko gauza bat da hori, Erreteriak dantza eta arte eszenikoen munduarekin duen lotura. Halaber bat dator Euskal Herriko dantza-eskolarik handiena Erreterian dagoela. Aitzitik, ez du ulertzen zergatik erakutsi nahi den eraikinarekin arazoak daudela, izan ere, aurrerago azalduko duten proiektu orokor bat dutelako. Hirugarren puntuari zera aitatzten dute: “Bilduri gogorazten diote Gipuzkoako ekonomia gainbehera-garaian dagoela, langabezia etengabe hazten ari dela, enpresak ixten ari direla eta diru-sarrera publikoak jaisten. Horregatik, arte eszenikoen bigarren zentro bat eraikitzeke milioi askoko mailegu bat hartzea lehengoa baliatu ahal litekeelarik, erantzukizun ekonomiko eza suposatzen du...”. Hemen Alderdi Sozialistako bozeramaileak une honetan bizitzen ari diren egoera hain tragikoari buruzko datuak aitatzten ditu. Berak ez du inolako zalantzarik egoera horrelakoa izango dela, eta, ziur aski, eman diren datuak zuzenak direla. Inor ez da ari hori ukatzen, baina, beharbada, badago aitatzten ez den eta alboratzen den beste datu bat, izan ere, herri honetan ez baita egin hausnarketa estrategikorik industria-hiriaren gainbehera hasi zenetik. Aitzitik, hausnarketa-estrategiko hori orain ari dira egiten eta elementu garrantzitsua dela uste du. Per capita errentari dagokionez datu kezagarriak dituzte, besteak beste, per capita errentan Gipuzkoako azken aurreko herria direlako; Gipuzkoa osoan lan-gabezi tasarik handiena duen herria delako, eta horretaz ez delako hausnarketarik egin, eta egoera honetara iritxi badira, ordura arte eginiko ibilbideagatik izan delako. Ez da hausnarketa-estrategikorik egin, hots, zein alternatiba eman industria-hiri honi. Eurek ordura arte ez dute ikusi. Plan estrategikoak esaten duenez gain, kontuan hartu behar dute herri horretako ekonomia-jardueraren % 72 zerbitzu-arlokoa dela, eta % 6 bakarrik industriakoa. Bere aburuz diagnosi hori aintzat hartu behar da beste edozein alternatiba abian jartzeko garaian. Aurkezturiko mozioei buruz, uste du, epe motzera begiratzen dela, ez dela epe luzera begiratzen, eta uste du horrek eragin dezakeela zehazteke ez uztea oihana ikusteko efektua. Lehen noizbait esan izan ohi du eta, berrituz esaten du: “aurrera soilik egin daitekeela gauza handietan pentsatzen bada, eta soilik egin daiteke aurrera urrutira begiratzen bada”. Begibistakoa da, dio, hau anbizio handiko proiektua dela, baina horrek ez du esan nahi errealitatek kanpo dagoenik, haren zeruak lurra ere baduelako alegia. Finantzazioa ere lortuko dutela uste du, urte anitzeko aurrekontuetan ere aurrerikusi dute. Ez dute inor engainatzen, 2012ko abenduaren 20an onartu zituzten 2013rako aurrekontu horiek. Bestalde, etengabe esaten da Udaltzaria aintzat hartu gabe egiten direla gauzak, eta hori ez da egia. Bere aburuz garrantzitsua da

aukera aprobetxatzea. Dantzagunea-proiektua jarri dute mahai gainean eta ez dago beste proiektu alternatiborik aukeratu, eta ez da herri honen gainbeherari erantzungo dion besterik izan. Euren iritziz honekin aukera berri bat irekitzen zaie, hain zuzen Txillidak esaten zuen moduan: “erroak herri honetan, baina adarrak Euskal Herriko zehar”-en antzekoa. Laugarren puntuari dagokionez, ostera: “Protokoloak Udala beharrazten du lokala egokitzeko proiektuaren kostuen % 50, gehi idazketari dagozkionak, bere gain hartzera”. Santa Teresaren konbentua ere aitutzen da, bertan esaten da “arte plastikoetako adarra Artelekura eramango dutelako, Aldundiak espazioa egokitzeko gastu guztiak bere gain hartzeaz gain, konpromisoa hartu duela, konpentsazio modura, konbentuan bizi direnek okupatzen duten espazioa eraberritzeko”. Kasu honetan –dio– Alderdi Sozialistako bozeramaileak jakingo du zertaz ari den Santa Teresa konbentuz hitz egiten duenean. Bere Taldeak duen informazioaren arabera, konbentua Aldundiarena da; konbentu osoa erosi zuen eta bera ari da arte plastikoetako zati bat Santa Teresa konbentura eramateko egin beharrekoak egiten. Hortik aurrera, haren aburuz, Alderdi Sozialistako bozeramaileak informazio diferentea baldin badu, foro horretara eman beharko luke, nahiz eta, bere iritziz, informazio hori okerra izan. Protokoloari dagokionez, eta baita EAJ Taldeak aitutzen zuenaren inguruan, pentsatzen du deskuidatzen direla balorazio horiek egiten dituztenean. Izan ere, Bozeramaileen Batzordean esan zuten eta orain ere gauza bera esaten du: Orain Niessengo lokalean soilik 74.000 euro ipiniko dituzte, 74.000 euro 524.000 eurotik. Hortaz, berak ez du ulertzen gastuei buruz zergatik egiten diren hausnarketa-mota horiek. Haren aburuz, herria irabazian aterako da. Lokal hori birgaitu, insonorizatu eta beste edozein gauzetarako ibiltzeko moduan jarri behar delako. Gero, behin Dantzagunea Lekuonara eramandakoan, udal lokal bat eraberritua eta birgaitua izango dute. Gainera, 74.000 euro bitan zatitzen badute, 37.000 euro izango liriateke, eta hori kostako den 262.000 eurori kentzen badiogu, Aldundiak udal lokalarentzako 225.000 euro jarriko du. Horixe da errealitatea –dio–, eta hortik Udala jartzen ari den dirua Aldundiak bakarrik erabiltzeko izango dela esatea ez da zuzena, justu alderantzizkoa baita. Gainera, bi urterako bakarrik izango dela esanez egiten den analisisia ez da egia, izan ere, justuki bi urterako delako, ateratzen direlako irabazian. Arazoa 30 urterako izango balitz sortuko litzateke, hura eztabaidagarria izango litzakeelako, baina orain ez du ulertzen nola egin litekeen tamaina horretako balorazioa, bai hala bai irabazian ateratzen direnean. Beharbada, errespetu guztiarekin esaten du, eragiketa ulertu ez delako egin da. Berak ez du ulertzen nola ukatu litekeen etorkizunean Udalarena izango den lokala eraberritzeak ekar lezaken abaintaila. Orobat, ez du ulertzen behin eta berriz esaten aritzea 500.000 euro baino gehiagoko inbertsioarekin egingo dena, 3 urte barru hustuta utziko dela. Berak ez daki nondik atera dituzten datu horiek. Era berean, bere irudikoz, tranpa duen baieztapena egiten da, Traje-museoa 8.000.000 euro baino gehiago kostako dela –Museoaren urteko mantentze-kostuak sartuta– esaten denean. Alderdi Sozialista proiektu ezberdinak planteatzen dituenean, horien artean Torrekuan Traje-museoa, kostuak desagertzen dira. Kostua Gobernu Taldeak proiektua planteatzen duenean ematen da, baina nonbait desagertu egiten da Alderdi Sozialistak proposatzen duenean, gaineratu du. Bosgarren puntuan Koldo Mitxelenan eta Kapitainenea eraberritzea 800.000 euro... kostako dela aitutzen da. Nondik atera dituzue zifra horiek, zertan oinarritu zarete, galdetu die. Izan ere, Iraultza, Kulturako zinegotzia eta Udal arkitektoarekin Kapitain Etxera bisitatuz eginiko bilera bakarrean –Bozeramaileen Batzordeari jakinarazia– beharrezkoak izango liriatekeen baldintzez hitz egiten zuten. Beste txosten baten zain daude, berori izan bezain laster emango die. Gainera, berak ez du ulertzen zertan oinarrituta esaten ari diren 800.000 euroko gastua izango duela; Koldo Mitxelena egokitzeko obrak 300.000 euroko kostako direla; patioa ixteko obrak 400.000 euro. Eurek dituzten zifren arabera, Koldo Mitxelenan egin beharreko gastua 300.000 eurokoa izango da, aspaldiko eskaria, bestalde. Patioa estaliko dute, eta gainera, eskola-orduetan erabiltzen ez dutenean, gainontzeko herritarrei irekia uztea proposatzen dute. Planteamendu horren aurka al zarete, galdetu die. Azkenik, seigarren puntuan, Alderdi Sozialistak –Bilduk eginiko proposamenarekiko– egiten duen planteamenduarekin 3.000.000 euro aurreztuko direla esaten da. Berak, ordea, ez du ulertzen zein irizpideren baitan. Azkenik, hau kezkarriagoa iruditzen zaio, puntuak banaka bozkatzea eskatzen

dute. Haren aburuz, ordea, jakinaren gainean egon behar dute bananduta bozkatzeko zer eskatzen ari diren. Izan ere, lehenengo puntuak ez du uste bananduta bozkatzeko arazorik egongo, planteamendua argia delako, hots, Dantzagunea Niessenera edo Lekuonara. Bigarren eta laugarren puntuak oso kontraesankorrak direla iruditzen zaizkio. Ez daki aurrekontuak onartzen direnean dokumentuak irakurtzen diren edo ez, Hirigintzak eginiko memorian argi eta garbi zera esaten baita: "Lekuonaren egitura egokitzea 826.000 €. Eraikin horretan lanak egin behar dira egituraren egonkortasuna ziurtatzeko, eta bertan Udal Liburutegiaren proiektuari dagozkion atal zenbait garatu ahal izateko". Aurrekontuan jasota dagoen laugarren puntuak aitatutakoa denez, berak ez du ulertzen zergatik eman nahi zaion baja partida bati eta funtzio berdinetarako beste bat sortu. Hau jada esplikaturik dago memorian, eta, beste gauzen artean, esaten da, Lekuona erortzen ari delako, jardungo dela. Hala, 826.000 euro eraikinaren egonkortasuna inguruz inguru ziurtatzeko dira. Bosgarren puntuari dagokionez, berriz, ez dutela bete leporatzen diote, baina egia, ordea, Bozeramaileen Batzordean hainbatetan elkartu direla da; informazioa ere pasa da eta argi dago ez dagoela inolako eragozpenik bilera berri bat egitkeo. Bere irudiko Jarraipen Batzordea abian dago, eta eskatzen hasita, funtzionamendua hobetzea eskatu daiteke. Berak horretarako ez du inolako eragozpenik, baina, berriro dio, Bozeramaileen Batzorde bat badagoela, urtarrilean aurkeztu eta onarturiko mozioaren harira sortutakoa. Hortaz, ez du ulertzen zertarako sortu behar den beste organo bat. Hirugarren puntuaz, aldiz, uste du karta guztiak mahai gainean daudela, izan ere, bere Taldeak toki bakoitzean egin beharreko obrak zenbat kostako diren txostena eman du. Are gehiago, Lekuonan Liburutegia ipintzeko proiektu bat zegoen 4.576.000 euroko aurrekontuarekin. Eta, berriro dio, ez du ulertzen zein txosten eskatzen dizkioten, jadanik Hirigintzako teknikarien proiektuan egina azaltzen delarik. Gainontzeko proiektuek ere aurrekontua dute. Ondorioz, bide bat hala beste hartu da erabaki beharrekoa, izan ere, erabakia atzeratzea zuhertasunez ez jardutea suposatuko lukeelako, eta Dantzagunea Erreteriarra ekartzeko aukera gal litekeelako. Egindako jarduketari dagokionez, zehazki Alderdi Sozialistak plan estrategikoa eta bete gabeko kontuez esandakoen inguruan, aitortzen du dokumentu bakar batean ez dela jartzen instalazio bakoitzaren lekua, baina bai Artiolak, Traje-museoak, Aterpetxeak eta Dantzaguneak duten garrantzia. Gaineratu du saiaterik ari direla gatazka politikoa beste herritarrek eta beste agente batzuek osatzen duten forora ez eramaten. Berak ulertzen du denak Dantzagunea Erreteriarra etortzearen alde egotea, gauza bera Traje-museoa eta Artiola ere. Haatik Aterpetxea lehen Liburutegia zegoen lekura eramateko hitz egiten da, baina berori kokatzeko eskuduntza Udalarari dagokio, eta une horretan eztabaidatzen ari dira. Finantzaziorik dagokionez, Niessengo lokalari buruzko azalpenak eman dituzte, nahiz eta badirudien batzuetan proiektu baten aurka egiteagatik edozein gauza esan litekeela. Tabacalera adibidea aitatu nahi du, orain lau zati berdinean, eta lehen Odon Elorzarekin hiru ziren. Hemen, ordea, Udalak gutxiena asumituko du eta Aldundiak, berriz, ia-ia dena. Hortaz, gauzak beren lekuan jarri behar direla uste du. Beraungo igerilekuak ere aitatzen dira; Merkatuzaharraren finantzazioa, baina Alderdi Sozialistari ahaztu zaio Beraungo igerilekuen proiektuaren bigarren zatia geratu zela finantzazaziorik gabe. Gobernu Talde honek ahalegin guztiak egin ditu; saiatu dira Alderdi Sozialistak konpromisozko protokoloa sina zezan bigarren zati horri aurre egin ahal izateko, baina azkenean ez da sinadurarik izan, eta ondorioz, hauxe da egoera. Erakundeek finantzatu beharrekoak kontu pixka batekin ibili behar dela uste du, ez baita txikleak bezala luzatzen. Alderdi Popularreko bozeramaileari erantzuten dio esanez ez duela uste oinarri ekonomikoak huts egiten dutenik, besteak beste, onarturiko Liburutegiko kostua 2015 arte banatuta dagoelako. Bidali den protokoloak beste gauza bat esaten du, beste bat idatziko dute, alegia, bat Niessenerako eta beste bat Lekuonarako, eta hor ezarriko da Lekuonak izango duen finantzazioa, gaineratu du. Bestalde, ondo aski ulertzen ditu EAJren bozeramailearen mesfidantzak eta Gobernua fiskalizatzeko duten obligazioa. Paperetan azaltzen da Lekuona finantzatzeko zatirik handia Udalak hartzen duela bere gain, baina konfiantza eta pazientzia pixka bat eskatzen du, emaitza herri honetarako onuragarria izango dela itxaropen osoa duelako. Iraila edo urrirako konpromiso zehatza lortzeko itxaropena dute. Hortaz, zorpetu

beharraren inguruan eginiko arazo-aipamenek ez dute zentzurik. Eurek konstziente dira eta ez da sartzeko euren parametro eta logikaren barruan zorpetze horietara jotzea. Eurek aurreikuspen batzuek egin dituzte eta unea iristen denean pasako dute informazio hori. Orobat aitatu nahi du kultura eta sormengune proiektua, hain zuzen ez delako Lekuona bakarrik, proiektu osoa baizik. Bere iritziz, bide luzea izan daiteke, eta, beste gauzen artean, herri hau bila zebilen alternatiba izan daiteke. Bere aburuz proiektu hau ondo ahokatzeko da eta plan estrategikoan azaldu diren beharrei erantzuten die. Alegia, alde zaharra berritzea, Kulturarako guneak, eraldaturiko ekonomia, gizarte ikasia eta eragilea, kanpora begira dagoen proiektua, bizitzeko eta bisitatzeko hiri erakargarria... Horiek dira, besteen artean, plan estrategikoaren elementuak. Azkenik, EAJren bozeramaileak, ez osoko bilkura honetan, baina bai Bozeramaileen Batzordean, gaurko prentsan ere irakur daiteke, proposatu zuen Lekuona eraikina ez soilik erabiltzeko Dantzagunearako, auditorio bat ere bertan sartzeko. EAJren bozeramailea lasai geratu dadin, proiektuan aitatzeko da kultura eta sormengunearen ezaugarrien artean, erdi aldean eszenatoki handi bat izango duela, sormeneko eta musika eta artistiko ikuskizunak egiteko aukera emango duena. Zentzu horretan, Euskadiko eta Biarritzeko orkestek erakutsi dute ekimenari buruzko interesik. Hori horrela izanik ere, zalantzaren bat sortuko balitz, Lekuona eraikina egiteko arkitektoak kontratatzeko baldintza-agiri teknikoetan zera esaten da: eraikinaren erdialdeko espazio-plazan egingo dira dantza eta jarduera eszenikoen inguruko milaka jarduera. Leku horrek, egungo eraikinaren baldintzen barruan ahalbidetzen duen espaziorik handiena izango du, eta gainontzeko erabilerak ahokatu egingo dira lurzoru horretan bertan. Horregatik, gauza horietarako ezarriko den azalera gutxi-gora-beherakoa izango da, handitzen saiatu beharrekoa. Toki horrek trabarik gabekoa izan behar du, eta dantza, errepresentazio eszeniko, etab. moduko jarduketak ezberdinak egin ahal izango dira, eta berorien musika-soinua ere kontuan hartu behar da. Kontu hori baldintza-agirietan aintzat hartu zen, eta proposamenean hartutako elementu bat horixe da, hots, nola lortu erdigune hori... Eskertzen du, beraz, Eusko Alderdi Jeltzaileak Dantzagunea baldintza hauetan Lekuonara eramateko erakutsitako jarrera.

\* Jose Angel Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) Ferradas jaunari erantzunez zera esan du: Alderdi Sozialistak ez duela ezetzaren diskurtsoa egiten. Uste du ondo geratzeko edo esango zuela. Izan ere, eurek esan baitute aspaldidanik euren proiektua, proiektu irekia dela, eztabaidatu eta hitz egin beharrekoa. Ez da "ez"-kontua. Hauteskunde-kutsua duela eta, eurek lanean aritu direnarekin koherentziarekin jardunez, uste dute gutxienez Liburutegia Lekuonan egon behar dukeela. Are gehiago, Liburutegia Lekuonan denek ekarpenekin, gauza gehiagotarako ere erabil daiteke, baita alderdi zenbaitek eskatu duten auditoriumerako ere. Eta, berriro dio, ez dela proiektu itxi bat, irekia baizik. Gainera, lehenengo egunetikdenek mahai gainean jartzen dituzten ekarpenak eztabaidatzeko eskatzen ari dira. Peña andrearengana zuzenduz auditoriuma hor jar daitekeela esan dio, horretarako denek artean hitz egin dezakete. Izan ere, Alderdi Sozialista ere kultura sustatzearen aldeko da, hori demostratu duela orain artean. Alkate jaunarekin, berriz, gauza askorekin ez dago ados, egunak joan egunak etorri bizi izan dituelako. Data eta jasotako dokumentuen inguruan Alkate jaunari galdetu dio, ea hitz egiten ari diren ekipamendu guztiak jasotzen dituen kontua hain serioa izanik, entregaturiko lau paperekin eztabaidatu daitekeen. Euri eta gainontzeko taldeei ez zaie hala iruditzen. Bestalde, ados daude dantza eta arte eszenikoak errotuta daudela eta Dantzaguneak Erreterian egon behar duela. Berak ez du sekula aurkakorik esan, bere Taldeak proposamena eztabaidatzeko egin du. Alkate jaunari aurpegiratu dio dena abian jarri duela kontua eztabaidatu eta mahai gainean jarri gabe, gauza bera eskatzen dute etengabe gainontzeko taldeek ere. Azkenean Dantzaguneak Lekuonara joan behar badu, Alderdi Sozialistak onartuko du gehiengoak esaten duena. Aldez aurretik hausnarketa estrategikorik ez dela egin eta, uste du orain kultura-ekipamenduez ari badira, hori lehen kudeatu eta etorkizunerako kudeaketa egin zelako dela. Artiola martxan ipini bada, Alderdi Sozialistak etorkizuneko kudeaketa hasi zelako dela. Liburutegia lekuz aldatzeko asmoa hobekuntza bat lortzeko zen. Hortaz, uste du ez daitekeela esan

aurreko Gobernu Taldeak ez zeukala kontua argi. Mozioan aitatzen diren zifrek zerikusia dute lehen eginiko kultur-ekipamenduekin. Alkateari aurpegiratu dio ez duela zenbaki bakar baten berririk eman, eta une hartantxen jakin duela 300.000 euroko gastua, baina inork ez zekiela eta soilik 100 eurotan deskuidatu direla. Hala ere, datu hau, beste asko bezala, orain artean ukatu da, eta badirudi, aparte ezohiko osoko bilkura bat egin behar dela Alkate jaunak zer pentsatzen duen jakin eta zer duen eskuartean esateko, korridoreetan edo Bozeramaileen Batzordeetan ez delako osoko bilkuratan ematen diren datuak ematen, eta horregatik, bere Taldea kexatzen da eta horregatik daude orain han. Izan ere, osoko bilkuran bezala egoeraren berri eman izan bazen, bere Taldeak ez zukeen eskatuko berori egin zedin.

\* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du herri hau etorkizuneko proiektuei begira jartzeko holako proiektuak behar dituela eta ez dagoela industria edo berrindustrializazio motako proiektu alternatiborik. Hortaz, irekita duten bide bakarra Dantzagune-proiektuak eta kultura-azpiegitura guztiak suposatzen duen kultura-erronka aprobeixatu eta zentzua eta koherentzia ematea da. Proiektua dena da, eta ardatz-harria kentzen badute, proiektua bertan behera eroriko da. Horrela, ez dezakete eskatu proiektuaren aldeko apustua egiteko, baina horretatik kanpo geratzen dena, hots, Dantzagunea Lekuonan, bazterrean geratuko da, hori delako zentzua eta koherentzia ematen diona. Bere aburuz Alderdi Sozialistak hartzen duen jarrera, ez du esango eroso denik, baina alde aurretik mahai gainean jarritako proiektutik at geratzen da. Azkenik, testuari dagokionez, gustatuko litzaioke Alderdi Sozialistako bozeramaileak bigarren eta laugarren puntuak argitzea, zeren eta, Alkate jaunak aitatu duen moduan, kontraesankorrak dira. Gainera, gustatuko litzaioke, Alderdi Popularrak zein Eusko Alderdi Jeltzaileak mahai gainean jarri dutenez, mozioa puntuz puntu bozkatzea.

\* Herzog jaunak (PP) esan du kultura eta sormen-gunea oso komentzigarria dela. Eurek pentsatzen dutena ulertzeko furgoneta bat erostea erabakitzen duen familia batekin konparaketa egin nahi du. Zertarako nahi dute furgoneta? Ba, haurrak ikastetxera eramateko eta lanerako. Eta, nolako furgoneta erosiko dute, eta non? Balioaren zati bat Pepe agentziak ordainduko du promozio bat egiten ari delako, baina furgoneta erosteko jakin behar da Pepe agentziak zenbat ordainduko duen. Diru asko ordainduko du eta merkeago aterako zaigu. Baina, zenbat? Horixe da falta duten datua. Esneketariaren kontuarekin dabilta, ez dakite Aldundiak zenbat emango duen eta zer nolako erabakia hartuko duen. Onartu behar al dute Aldundiak esatea negoziazioan Erreterria ondo aterako dela? Berak uste du lehenengo jakin behar dutela Aldundiak zenbat jarriko duen, eta Udalari zenbat tokatuko zaion. Behin hori argitutakoan, zenbakiak mahai gainean eta jakinik zer egin behar duten eta nola finantzatu duen, sar daitezke joan-etorri horretan eta ez alderantziz. Izan ere, bestela, etxea teilatutik hasiko dute. Mozioaren bigarren eta laugarren artikuluen inguruan berak ez daki zergatik eman behar zaion baja partida bati, gero beste bat berdina egiteko. Kontu horri buruzko argibideren bat ematea gustatuko litzaioke.

\* Peña andreak (EAJ-PNV) esan du bere Taldeak uste duela informazioa ez dela hara-hona aise ibili. Izan ere, Gobernu Taldeari eskatu zaionean –gainera osoko bilkuran aho batez onarturikoa– Arteleku, Traje-museoa, Udal Liburutegia, Aterpetxea edo aurreikusita egon zitekeen eta inbertsioa beharko luketeen beste edozein kultura-ekipamenduei buruzko txostenak ekartzeko, mantentze, garbitze eta argiaren gastuei buruzko informazioa eman da, baina mozioan ez dira txosten horiek aitatzen, berkokatu beharra baizik. Puzlea nola osatu behar den ari dira hizketan. Baldintza-agirietan irakurri dutenaz ari dira, hori zelako berak jakin beharrekoa. Gaur egun oraindik ez dakite zehatz-mehatz zenbat neurtzen duen. Jakin badakite erdian gune handi bat izango duela, baina ez dute informazio guztia eskuartean. Uste du informazio hori guztia bideratzeko ezarritako baliabideak ez duela funtzionatu aitortu beharko dute eta irtenbideren bat bilatu beharko dutela kontua ahalik eta hobekien partekatu ahal izateko. Bere iritziz, zaila da gobernua eta oposizioaren

arteko tartea gainditzea, eta konfiantza kontua, berriz, inertiari jarraiki konplikatua izaten da. Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak edo Estatu Espainolak areto bat egokitzen badu, bertan proiektu bat burutu nahi duelako, eta proiektu horretan portzentaje jakin batekin esku hartzen badu, proiektua amaitutakoan, gorago dagoen Erakundeak aretoa ez du berekin eramaten, eta egokitua uzten du. Gaineratu duenez, EAJK interesa du proiektua hona ekartzeko, baina baita Aldundiak ere. Errenteriara etortzen bada, ez da nora joan ez dakielako, hemen baliabide interesgarriak daudela badakielako baizik. Dantzagune ekartzea eta Lekuonan kokatzea partekatzen duten bezala, ez datoz bat % 100ean gainontzeko kultura-ekipamenduekin egin nahi dutenarekin. Bere irudiko kontu hori ez dago nahikoa landua, eta bat dator Alderdi Sozialistak eginiko ekarpenekin. Haren ustez mozioa ez da Dantzagune-aferearen ingurukoa bakarrik, bertan ekipamendu guztiez hitz egiten delako. Bestalde, proiektuaren kostuak EAJri zalantza asko sortzen dizkion plano bat diseinatuta badagoela baldin badakite ere, baina ez dakite gehiago. Zentzu horretan informazio-gose daude, horrek lan gehiago eskatzen badu ere. Eta proiektua bideratzeko komunikazio-kanala ezartzea beharrezkoa da. Halaber, mozioaren bigarren eta laugarren puntuak argitzea beharrezkoa jotzen dute.

\* Alkate jaunak (E.O.BILDU) uste du kasu honetan aukera bat egin behar dela eta horretarako afixak mahai gainean daudela. Badakite zenbat kostako den gauza bat eta bestea, baita zenbat suposatuko duen ere. Proiektu bat asumitzen denean –dio–, begibistakoa da arriskuak daudela, gehixeago edo gutxiexago irabazi edo galdu litekeelako. Berak ez du uste zentzu gehiegirik duenik aurkezturiko mozioak. Bigarren eta laugarren puntuak kontraesankorrak dira. Jarraipen batzordeari dagokionez, jada badago batzorde bat. Beharrezko ikusiz gero eta, nahi izanez gero, gehitu liteke bilera-kopurua, horrek ez duelako inolako arazorik sortzen. Eurek izan duten informazioa eman diete eta zentzu horretan nahiko gardenak izan direla uste du, txostena jaso bezain laster bidaltzen zutelako. Hirugarren puntuari dagokionez, Liburutegia-proiektu bat zegoen, eta orain Dantzagune-proiektua dute arte eszenikoei irekia, gisa horretan herri honek dituen beharrei Lekuonan erantzuna ematen diete. Eta, berriro dio, aukera bat egin behar dela. Bere aburuz proiektuak eta kostuak ezarriak eta argituak daude, Kapitain etxekoa izan ezik, hori idazten ari direlako eta Torrekua egiteke dagoelako. Zirriborro bat egin zuten mota horretako instalakuntzak zer suposatuko zuketean jakiteko eta aurrekontuan sartzeko. Hori egin ondoren, proiektua egin behar da, gero egokia den ikusi eta partekatzeko. Eta, berriro esaten du, ez dela kontuan hartzen ari, nahiz eta izugarritzko garrantzia izan, proiektu guztiak erlazionatuta daudela. Izan ere, Artiola, Traje-museoa, Torrekua, Liburutegia eta Lekuona ez dira ulertzen bananduta egotea. Garrantzi handiagoa izango dute elkarrekin egiten badira, gaineratu du. Alderdi Sozialistako bozeramaileari erantzunez esan dio ez direla lau horri, kostu guztiak jasota dauden proiektu oso bat baizik. Are gehiago esan nahi dute: berak ez du ikusi Traje-museoaren proiektu bakar bat ere, ezta Liburutegiarena ere. Aldiz, Gobernu Taldeari izugarritzko dokumentu pila eskatzen zaizkio, baina berak hori mahai gainean jarri dutela uste du. Gustatu ala ez, proiektu bat dute, eta ez dute onartuko ez dagoela, dokumentazioa falta dela, etab. esatea. Gainera, aurrekontu batzuek daude, baina ematen du ez direla onartu ere, aurrekontuekin batera informazioa eransten delako. Azkeneko Bozeramaileen batzordean pleguak aitatu ziren, eta beroriek jasotzeko ez zegoela inolako arazorik esan zuten. Horiek gauza askoz hitz egiten dute, eta horiek ere mahai gainean jarri dituzte. Hortaz, ez du ulertzen zer gehiago eska daitekeen. Gaineratu du, errespetu guztiarekin, aurreko Gobernu-kudeatzaileak ziur aski ahaleginak egingo zituen Artiola aurrera ateratzeko, baina hala izan bada, bultzatzen ari diren Artisan-elkarte gehi Ereintzari esker izan da. Bere irudiko protagonismo hori eurek izan behar dute, besteak beste, urteak daramaketelako proiektua aurrera ateratzeko borrokatzen. Eurek % 100ean bultzatuko dute proiektu-multzoaren barruan, bakarka jardunez baino indar gehiago hartzen duelako modu horretan Artiolak. Berriro aitatu ditu zenbaki-kontuak, izan ere, beste instalakuntzak konparatuz zenbakiak egiten direlako baina ez da esaten horiek zenbatekoak diren. Esan da zifra zenbait ez dela eman, haatik berak azaltzen ez diren zenbaki horiek zehaztea eskatzen du, gauza bera txostenen aferean, zeren eta, eman ez direnak, berriro dio, orain egiten ari delako da, eta beroriek dituztenean

gainontzekoei gehitu zaizkie beharrezko zorrotasunarekin. Berari aitatu den gai bat harrigarri samarra egiten zaio. Alegia, Aldundiak Niessengo lokalean duen ustezko interesa eta lagatuko zaion epea. Begibistakoa da Aldundiak jakingo duela interesatzen zaion edo ez, baina jakin badaki herri honi asko interesatzen zaiola Dantzagunea etortzea. Berrito aitatuko ditu datuak, Aldundiak 225.000 € jarriko dituelako bi urtez lagatzeagatik. Hori da prezioa, eta, galdetu du, ea prezio hori Aldundiarentzat edo Udalarentzat den interesgarria. Bere irudiko Gobernu Taldeak ondo negoziatu du, alabaina susmoak ere ulertzen ditu. Bestalde, asko pozten dira Eusko Alderdi Nazionalistak begi onez ikustea Lekuona-proiektua, gustatuko zaiela erabat konbentziturik daudelako. Hortaz, pazientzia pixka bat eskatzen du proiektuaren afixak gutxinaka-gutxinaka ahokatzeko.

\* Jose Angel Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du zalantzak dituela, ez dakielako Liburutegian lehenengo edo bigarren solairuan jarriko duten, ikastetxeko patioa nola geratuko den eta negoziazioa nola eraman den. Gaineratu duenez, azkenean Mendoza jaunak, kontatzen ari denarekin eta lehen esan ez dienekin nahasi nahi ditu. Bere iritziz, Talde guztiek berdin pentsatzen dute, eta horregatik ari zatzazkie eskatzen eta exijitzen. Hortaz, Alkate jaunari esan dio batzuetan harri eta zuhur uzten duela. Bere Taldeak berdin pentsatzen jarraitzen du, eta uste du gainontzeko taldeekin kontua ez dela landu, erdiko bidetik jo nahi izan dutela, denek eztabaidatu eta parte har zezaketenean. Gaineratu du Dantzagune-aferra mahai gainean, eta eskatzen dio Liburutegia-proiektua bat badagoela ez aipatzeko hainbeste aldiz. Begibistakoa delako proiektua badagoela, baina eurek planteatzen dutenean lehenbiziko proiektuan baino askosaz gauza gehiago doaz, hain zuzen inguru horri administrazio eta kultura-edukin zabala emateko. Kostuak oso diferenteak izan daitezke, baina hitz egin eta eztabaidatu behar dituzte, azkenean Dantzagunea Lekuonara eramateko. Horregatik eskatzen dute eztabaida eta diskusioa ez baztertzeko, aspaldiko hileetan horixen eskatzen ari direlako.

\* Herzog jaunak (PP) bost minutuko etena eskatu du.

\* Mendoza alkate jaunak (E.O. BILDU) esan du etena Rodriguez jaunari erantzun ondoren egingo dutela.

\* Mendoza alkate jaunak (E.O. BILDU) esan du berak ez diola inori eragozten nahi duena planteatzeko. Haatik, proiektu zehatz bat dagoenez eta alternatibarik ez, hura planteatzen baino ez dira ari. Ez du ulertzen zergatik harri-zuhur geratzen den, bera datuak baino ematen ez delarik ari, eta inork ez dituelako desligimatu berak mahai gainean ezarritako datuak. Eta, berrito dio, txostenak bidali dituztela, hori ez du inork ukatu, ezta azken Bozeramaileen Batzordean ere, Iraultzarekin, Kapitain Etxeko kostuak zer suposatuko zuketeen jakiteko, egindako bisitaren berri emateko. Batzuek aurreratu eta Kapitain Etxeak zer suposatuko duen galdetzen dute. Bat harri eta zuhur gera daiteke, baina gauzak dauden bezalakoak dira. Gaineratu du Koldo Mitxelenako aferaren inguruan ezer ez dela aldatu, izan ere, eurek eginiko planteamenduaren arabera, gimnasioa lehenengo solairura eramango dute eta Liburutegia bigarrenera, orduan berak ez daki zein den arazoa. Une hauetan Koldo Mitxelenako gimnasioak ez ditu betetzen bete beharreko baldintzak, eta erabat insonorizatutako lokal batera eramatea planteatzen dute, berak ez daki zergatik ez duen balio lokal horrek gimnasia-rako, gisa horretan lege-baldintza guztiak beteko dituelako. Justuan baldintza horiek igo dute aurrekontua 450.000 eurotik 524.000 eurora. Eta, berrito dio, planteamendu berdina dela: liburutegia goiko solairura eramatea 1.100.000 € inguru. Horiek dira mahai gainean ezarri dituzten datuak, esan du.

Mintzaldia amaitutakoan, Mendoza alkate jaunak (E.O. BILDU) baimendu du Alderdi Popularreko bozeramaileak eskaturiko etena.

\* Jose Angel Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) berrito esan du mozioan puntuz puntu zehazturiko alternatiba bat izaten jarraitzen dutela. Mahai gainean jartzea, lantzea eta adostea gustatuko litzaieke. Ondorioz, inork ez dezake esan ez dutela alternatibarik eta ez dakitela zertaz ari diren. Hori aintzat hartuta eta kontuan izanik bigarren eta laugarren puntuen



inguruan egin diren eskaerak, bigarren eta laugarren puntuak bat egitea proposatzen dute. Alegia, laugarrenaren zati bat bigarrenaren sartuko litzateke, eta bigarrenaren zati bat desagertuko litzateke. Puntua ondorengo eran geratuko litzateke: "Lekuona eraikinaren 1 04 01 622 432 10 01 aurrekontu-partida: egitura egokitzeko ezarritako 826.000 euroak Lekuona eraikinaren mantentze-lanak – teknikoki beharrezkoak jotzen direnak– egiteko bakarrik izan dadila, hain zuzen eraikina bera gotortu eta etorkizunean eraberriketa bermatzeko".

\* Mendoza alkate jaunak (E.O. BILDU) gogoratu proposamena bat osoa dela, nahiz eta, denak ados badira, puntuz puntu bozkatu dezaketen.

\* Jose Angel Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du berak ez duela inolako eragozpenik mozioa puntuz puntu bozkatzeko. Gainera, 1.1 puntua indarrrik gabe uztea proposatu du.

\* Mendoza alkate jaunak (E.O. BILDU) galdetu du ea zehatz-mehatz zer nahi duen Alderdi Sozialistak.

\* Jose Angel Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du argi dagoela, mozioan esaten dena.

\* Mendoza alkate jaunak (E.O. BILDU) ihardetsi dio lehenengo bigarren eta laugarren puntuak ez zirela ulertzen, eta orain, berak ez daki zer bozkatu nahi den.

\* Jose Angel Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun dio bi proposamen egin dituztela, Alkate jaunak bigarren eta laugarren puntuei emaniko argibideak barne. Gauza bera egin dute ere gainontzeko alderdiek. Berak argitu du, bigarren eta laugarren puntuak bat egiteko proposamena egin du. Hortik aurrera, dio, Alderdi Sozialistak ez du inolako arazorik puntuz puntu bozkatzeko.

\* Mendoza alkate jaunak (E.O. BILDU), berriro dio, mozio horrek zentzua bere osotasunean duela. Nahi izanez gero, puntuz puntu bozkatu dezakete, baina, errespetu guztiarekin bada ere, absurdoaren hurbilekoa da. Izan ere, Lekuona Dantzagunerako ez dela egokia esaten da, hortan oinarrituz egin da mozio osoa, eta orain, bat-batean, 1.1 kendu da. Bigarrenarekin ez daki zer nolako nahasketa egin den, eta hirugarrenean ez dakite zehatz-mehatz zein txostenez ari diren.?

\* Jose Angel Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du hori dela Alkate jaunak nahiko lukeena. Dantzagunea Lekuonan beti mahai gainean jartzen du bide horretatik eramateko. Euren, aldiz, harago doa, ekipamendu-multzoa hain zuzen ere, talde guztiek aukera izan dezaten gauzak planteatu eta mahai gainean jartzeko. Esan dio ez eramateko bide horretatik, hori ez delako hola. Era berean eskatzen dio ez esateko Alderdi Sozialistak ez duela proiekturik, baduelako eta bertan azalduta dagoelako. Argi dago, esaten dio ez inguratzeko, eta ez sartzeko beste hariko ezpaletan.

\* Mendoza alkate jaunak (E.O. BILDU) berriro aitatu ditu mozioaren puntuak eta gainontzeko alderdiek euren iritzia emateko eskatu die. Berak testua banandua bozkatzeari ez dio inolako koherentziarik ikusten. Izan ere, aktak egiten direnean, eta osoko bilkurak hartutako akordioak ezartzen direnean, bateren batek galdetu du ea zein den zehatz-mehatz hartutako akordioa. Eta berriro esan du ea zer nolako azterlanak eskatzen zaizkion. Gauza asko esaten duen azalpen-zatia kentzen bada, eta bakarrik ebazpen-zatia jarri, uste du akordioa ez duela inork ulertuko.

\* Peña andreak (EAJ-PNV) esan du bere iritziz Alderdi Sozialistak aurkezturiko mozioaren lehenengo eta bigarren puntuetan Lekuonaz eta Dantzagunez hitz egiten du. Ebazpen-zatian bada beste atal bat non ekipamendu-multzo guztiei buruzko proposamena egiten den. Haren hitzetan hori eskatzen du, aztertu, baloratu eta beste alternatibak planteatzeko. Bigarren eta laugarren puntuak kontraesankorrak direnez, beste alternatiba bat egin du. Berak ez du mozioa puntuz puntu bozkatzeko arazorik ikusten. Bere aburuz, Alderdi Sozialistak kultura-ekipamenduei buruz duen jarreraren berri ematen du.

Bozketa nola egin delibratzen jarraitu dute, eta azkenean Alkateak bi minutuko etena baimendu du, talde bakoitzak zer bozkatu behar duen erabakitzeko.

Osoko bilkurari berriro hasiera eman ondoren, mozioa bozkatzera pasa dira. Hala ere, Alkateak argi utzi du ebazpen-zatia bakarrik bozkatuko dutela, ez azalpen-zatia.

Hortaz, Herzog jaunak (PP) mozioa puntuz puntu bozkatzeko eskaera bozkatu dute.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 7 botorekin (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak), aurkako 12 botorekin (O.E. BILDU, EAJ/PNV, Errenteriako Ezkerra) eta 2 abstentziaz (PP),

## **ERABAKI DU**

**Atzera botatzea** mozioaren lehenengo puntua, hitz hitz zera dioena:

1. Eskatzea Udal Gobernu Taldeari Gipuzkoako Foru aldundiarekin eginiko protokoloaren terminoak birnegozia ditzan, beti ere ondoko aginduak dituela:

1.1 Lortzea Dantzagunea-proiektua “Errenteria Hiria” kulturguneak okupatzen duen eraikinean sartzea, beti ere aukeratutako leku hori gutxienez 10 urte eta gehienez 20 urterako lagako litzatekeelarik.

Jarraian,

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP) eta 9 aurkakoekin (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra),

## **ERABAKI DU**

**Onartzea** mozioaren 1.2 puntua, hitzez hitz honela dioena:

1. Eskatzea Udal Gobernu Taldeari Gipuzkoako Foru aldundiarekin eginiko protokoloaren terminoak birnegozia ditzan, beti ere ondoko aginduak dituela:

1.2 Birnegoziatu baldintza-ekonomikoak udal ekarpena -proiektu osoaren kostuak % 20 baino gehiago suposatuko ez lukeena- berrerekatzeko.

Ondoren,

Mozioaren bigarren puntua, laugarrenarekin bat eginda, Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak proposatu bezala, bozkatu dute.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP) eta 9 abstentziaz (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra),

## **ERABAKI DU**

**Onartzea** mozioaren bigarren puntua, laugarrenarekin bat eginda, Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak proposatu bezala, zeina ondorengo eran idatzita geratu baita:

2. Lekuona Eraikinaren egitura-egokitzeko (ULO) aurreikusitako 826.000 euroko 1 04 01 622 432 10 01 aurrekontu-partidari soilik izateko Lekuona eraikina mantentzeko teknika-ikuspegi batetik egin beharreko obrak burutzeko, hain zuzen eraikina sendotu eta etorkizuneko eraberritzea bermatu ahal izateko.

Jarraian,

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP) eta 9 abstentziaz (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra),

## **ERABAKI DU**

**Onartzea** mozioaren hirugarren puntua, hitzez hitz zera dioena:

3. Eskatzea Hirigintza departamentuari “Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak” udal taldeak ekipamenduak antolatzeko kostu-azterketa eta bideragarritasuna egin dezan. Era berean, aztertu eta baloratu beharko lirateke beste alderdi politikoek planteatuko lituzketen antolamendu-alternatibak.

Segidan,

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP) eta 9 abstentziaz (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra),

## **ERABAKI DU**

**Onartzea** mozioaren bosgarren puntua (akordio honetan 4. puntu gisa jasotakoa), honek hitzez hitz zera dio:

4. Sortzea akordio honen jarraipena egiteko batzorde bat, alderdi politikoen bozeramaileek osatuko luketena. Beronek eztabaidatu eta erabakiko lituzke non jarri kultura-ekipamenduak.”

\* Alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du zergatik abstenitu diren 2., 3. eta 4. puntuetan, hain zuzen eurentzat ez duelako zentzu gehiegirik. Bigarrena aurrekontuetan jasota dago, hirugarrena egiten ari da eta laugarrena martxan dagoelako.

-----

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 18:40 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, \_\_\_\_\_zenbakitik \_\_\_\_\_ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.